

LIBU INTERESGARRIENA

Bazen behin liburu bat Libu deitzen zena. Libu orri gutxiko liburu bat zen, kanpotik triste ikusten zitzaion baina Liburen lagunak pentsatzen zuten Libu ez zela horrelakoa. Liburi triste ikusten zitzaion pentsatzen zuelako ez zela interesgarria inork ez zuelako irakurtzen. Liburen lagunak adostu zuten zerbait egitea Libu ez egoteko triste. Eta egunak pentsatu ondoren hau adostu zuten:

- Zuek!! entzun niri mesedez - Esan zuen Arkatztxok
- Zer??? - Esan zuen Borragomak
- Animatu zaitez, pozik egon, Borragoma! Esan zuen Landarotxok
poz-pozik
- Bai - Esan zuen Borragomak
- Zer egin behar dugu Libu pozik egteko?? - Esan zuen Landaratzok
- Libu berriztea magia bidez - Esan zuen Arkatztxok pozik ere

Elkarriketaren ondoren Liburengana joan ziren baina Libu ez zegoen. Leku guztietan begiratu zuten, ez zuten topatu Libu. Desagertuta zegoen. Non egongo zen?? Arkatztxo, Landaratzok eta Borragoma oso larrituta zeuden. Orain dela 30 minutu Libu berriztea zen misioa eta orain Libu topatzea zen. Liburen arrastorik ez zeuden...

- Ez dago arrastorik - Esan zuen Borragomak larrituta

Hortik aurrera edozein pista topatu behar zuten Libu topatzeko. Hurrengo hiru egun osoak Libu topatzen saiatu ziren baina ez zuten topatu. Landaratzori zerbait bururatu zitzaion Liburen egunerokoan begiratzea eta ikusi zuten idazten zuen dena tristea zela.

Eta hau topatu zuten orri batean:

“Nik nahi dudana, berriztea da, ez naiz interesgarria inork ez nau irakurtzen, bakarrik, nire lagunekin seguru sentitzen naiz”

orri askok esaten zuen baina ez zuena esaten zen non zegoen Libu. Hiru lagunak beste orrialde baten begiratu zuten eta orain bai jartzen zuen non zegoen Libu.

“Liburutegi kanpoan egongo naiz, askatzeko dudak amorro guztia”

- Zuek Libu liburutegi kanpoan dago, goazen!!!- Esan zuen Arkatztxok
- Bai goazen - Esan zuen Borragomak eta Landaratzok batera.

Hiru lagunak kanpora joan ziren korrika eta Libu han zegoen eserita eserleku batean eta oraindik triste zegoen eta bere lagunak korrika joan ziren berarengana eta Libu poztu egin zen bere lagunak ikusterakoan eta Borragomak, Landaratzok eta Arkatztxo ere pozik jarri ziren.

- Libu hemen zaude!!! - Esan zuen landaratzok poz-pozik
- Non egon zara orain arte? - Esan zuen Borragomak.
- Hemen egon naiz orain arte - Esan zuen Libuk

Berriz ere lau lagunak elkartuta zeuden eta orain Libu bueltan zegoela lau

lagunak arratsalde osoan hizketan egiten egon ziren.

Hurrengo egunean Liburen barruan zerbait aldatu zen, orain pozik zegoen eta lagunak esan zioten ea azala berriztea nahiko lukeen eta esan zuen baietz. Lagunak eta Libu materiala prestatzen hasi ziren eta hurrengo egunerako dena prest zegoen.

Hurrengo egunean, goizean, Landaratxo, Borragoma eta Arkatztxo Libu berrizten hasi ziren. Kolorea aldatzen, orriak aldatzen eta izenburua ere, aldatzen eta abar...

Bi ordu osoak egon ziren deskantsurik gabe eta azkenean bukatu zuten. Orain Liburen izenburua LIBU INTERESGARRIENA zen. Liburi asko gustatu zitzaion, ez zuten erabili magia hasieran adostu zuten moduan baina Libu pozik zegoen eta hori zen misio handiena. Lortu zuten Libu jende askok irakurtzea eta pozik zegoen eta bere lagunak ere bai.

Ezizena